

## **KOSTU EGITURA**

### **Zein dira zure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?**

Gure proiektuaren helburua laguntzea da eta irabazi asmorik gabekoa da, hori dela eta nahi duguna gure ideia diputazioari saltzea da, ez diogu beste enpresa bati saldu nahi ez dugulako nahi inor enpresa txikietaz aprobeztatzea pandemia momentu zail hauetan. Ez dakigu hori lortuko dugun baina baietz espero dugu. Bestela, gure proiektuak dituen kostuak honako hauek dira:

-Webgunearen domeinua: Hasieran 15 euro kostatzen ditu eta urte bat igaro ondoren 20-25 euro artean.

-Gure webgunearen programazioataz eta koordinazioataz arduratuko den pertsona bat kontratatuko dugu eta bere betebeharra, bezeroek web-orriko produktuak eskatzen dituztenean, produktu horiek antolatzea eta bezeroei saltzea izango da, baita webgunearen mantenimendua eramatea ere, arazoak konpondu eta dena ondo dagoela egiaztatzea baita.

-Bezeroek webguneko produktuak eskatzen dituztenean, produktu horiek bezeroen etxeetara iristarazteko banatzaileak kontratatu beharko dira. Banaketak azkarra izan behar du, produktuak bezeroei ahalik eta azkarren eta ahalik eta egoera onenean heltzeko.

-Banatzaileak produktuak inguruko auzoetan banatu behar dituztenean bertara heltzeko garraio bide bat beharko du eta hori lortzea beharrezkoa izango da, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Gure asmoa ahalik eta leku gehienetara heltzea da eta horretarako garraioa oso beharrezkoa ikusten dugu.

-Oruberik ez dugu beharko, programatzaileak bere etxetik egin ahalko du lana, eta banatzaileek produktuak zuzenean dendatik hartuko dituzte ondoren bezeroen etxeetara eramateko.

Kostu finkoak: Programatzailea, autoak.

Kostu aldakorak: Banatzaileak, banatze kostua (kaxak etab.)

